



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/06/21

Foru Aldundiak bidai kopuru mugea ezarriko dau Aldundiaren esku dagozan eta bidesaria ordaintzea eskatzen dabenean errepideak erabilteagaitik gehienez be hilean 30 euro pagetako

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatua Batzar Nagusien aurrera etorri da gaur, berak eskatuta, datorren urtetik aurrera “tarifenean eredu integral” barria martxan jarteko oinarria izango dan azterlana Batzarretako taldeei azaltzeko. Eredu hori bidesaria dabenean errepideak erabilten dituen bizkaitarrei aplikauko jake, jaso daitezkezan hobari modalidadeak batuz. Jagokon batzordean emon dauen azalpenean, diputatuak esan dauenez, bere asmoa eztabaidea zabaltzea da, AP-8 autobideko, Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarrako (HSM-VSM) eta Artxandako tuneletako erabilteagaitik, 30 eurotan ezarri dan hileko ordainketa mugaz baliu ahal daitezana.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako batzordean izan dauen agerraldian, lurraldeko autobideetako –AP-68an izan ezik– ordainketa politika barri horren aplikazioak eragingo dituan aldaketak azaldu ditu Pradalesek. Argitu dauenez, eredu barri horrek “ez dau eraginik izango” Bizkaiko errepideen ekonomia eta finantza planean.

Aldundiak “bost” alternatiba aztertu ditu gaur egungo sistema aldatzeko. Horreetako bi tarifenean aldaketan egon dira oinarrituta, eta beste hiruak diru-laguntza sistema ezartean. Azkenean, aukeratu dan sistema “hileko gastuaren mugea” izan da, 30 eurotan ezarriko dana. Pradalesek adierazo dauenez, alternatiba horrek ez dau eraginik izango Bizkaiko errepideen ekonomia eta finantza planean eta, gainera “arin” jarri ahal izango da martxan eta Bizkaiko herritar guztiei ekarriko deutsez onurak. Argi dago proposamen horrek ez dauela eraginik izango ahalmen handiko errepideetan egiten diran bidaia guztien “%60” hartzen dauen “igaroteko trafikoa”.

Eredu barria “finantza planaren iraunkortasuneko erespideetan” eta “gizarte bardintasuneko eta lurralde orekako erespideetan” oinarrituta aukeratu da, eta, horrez gain, “ingurumeneko iraunkortasuneko aldagaia” eta AP-8 autobidea, Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarra (HSM-VSM) eta Artxandako tunelak erabilteko dagozan laguntza desbardinak bateratzeko aukerea be hartu ditu kontuan.

Aukeratu dan ereduak puntuazinarik hoberena lortu dau, erespide horreetan oinarrituta aztertu diran bost aukeren artean. Azkenean, Aldundiak baztertu egin dau tarifenean jatsiera lineala edo erabilteagaitik beharpen handiagoak apliketea, eta baita aurretik kopuru finko bat ordaindu ostean AP-8 autobidearen diru-laguntzen eredu zabaltzea edo tarifa “laua” ezartea be.

Kontrolako sistema, Aldundiaren diru-laguntzak jaso gura dituen ibilgailuetan instalau beharko dan VÍA-T deritxonagaz “osagarriak” izan beharko diran teknologien konbinazioa izango da. Teknologien konbinazio horrek (DSRC eta ALPR) ez dau “inbertsino handirik” eskatzen, “egindako inbertsinoak amortizetako” aukerea emoten dau eta, gainera, “nahikoa da iruzurraren kontrola bermatzeko”, azaldu dau Pradalesek.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bere kalkuluek erakusten dabenez, bidesari eredu barri horrek “hirukoiztu” egingo dau une honetan Bizkaian VÍA-T deritxona instalauta daben ibilgailuen kopurua. Interbiakeko teleordainketako kabinetatik gaur egun igaroten diran “8.000 ibilgailu inguruak”, datorren urtean “24.000 inguru” izango dira.

Aldundiaren diru-laguntzen onurak jaso ahal izateko operatibea hau izango da: sisteman alta emon beharko da, Aldundiaren webgunearen bitartez, bertan dagoan formularioa betez, pertsona gidaria eta ibilgailuaren matrikulea adierazoz, gero ibilgailua gidatzen dauena beste senide bat bada be. Iruzurraren kontrola matrikulak irakurteko sistemaren bitartez egingo da.

Sistemak, orokorrean (irakurketarako ekipamendu finkoak, tresna informatikoak eta "Back Office" deritxona) “750.000 euroko” inbertsinoa eragingo dau, eta sei hilebetetan egon beharko da prest, 2017an martxan jarri ahal izateko. Pradalesek adierazo dauenez, 30 eurora heltzen ez diran errepideetako erabiltzaileek, gaur egun AP-8 autobidean apliketan diran beherapenak lortu ahal izango ditue hiru errepideetan. “%35eko” beherapena hilean 11 eta 25 bidaia artean egiten baditue, edo “%45ekoa” 26 bidaia baino gehiago egiten baditue. Beherapen horreek gauza barria izango dira HSM-VSMn eta Artxandako tuneletan.

Pradalesek azpimarratu dauenez, beharrezkoa izango da hilean gehieneko mugea ezartea, beste lurralde batzuetan –Gipuzkoan– gertatu izandakoa moduko “ondorio kaltegarriak” saihesteko, Vía-T gailua automobil batetik beste batera aldatzeko aukerari ez izateko. Diputatuak adierazo dauenez, Gipuzkoako Aldundiagaz berbetan ari dira, lurralde biak lotzen dituan autopistan ezarri daitekezan tarifa sistemak aztertzeko.

Diputatuak adierazo dauenez, sistema barriak “3,3 milioi euro” gehiagoko gastua eragingo dau laguntzetan, hipotesi “ezezkorrena” kontuan izanda, eta Bizkaian bizi diran pertsona fisikoei baino ez jake aplikauko. Batzarkide batzuek gogoratu dabenez, “autonomoak edo taxistak” laguntzetatik kanpo geratuko dira. Dana dala, Pradalesek gogoratu dauen moduan, horreek “euren gastuak kendu” ahal izango ditue eta, taxisten kasuan, bidesariaren kostua bezeroei “jasanarazo” ahal izango deutse.

ONARTU EZ DIRAN PROPOSAMENAK

Diputatuak emondako azalpenen ostean, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako batzordeak arauz besteko proposamen bi eztabaidatu ditu. EH Bilduk, N-634 errepidean Kadagua ibaiaren gainetik pasetan dan zubian estaldurea jartea planteauko dau alde batetik, eta bestetik, Urduña eta Bilbo artean, Nerbioi errekarren ibaibideari jarraituz, “bidegorriak” eregiteko hainbat LPptan aurreikusten diran hainbat proiektu amaitzea. Proposamen bietatik bat be ez da onartu, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeak kontra agertu diralako. Podemos Bizkaia taldea izan da ekimen horreen alde agertu dan bakarra, eta PP taldea abstenidu egin da.

Jeltzaleek eta sozialistek adierazo dabenez, Barakaldoko Burtzeña auzoa eta Bilboko Zorrotzakoa bereizten dituan zubiaren estalduraren kasuan, inplikauta dagozan administrazioak (Foru Aldundia eta Bilboko eta Barakaldoko Udalak) “emon beharreko pausuak ari dira emoten”, egon daiteken soluzinoa aztertzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Nerbioi errekaren harroan bidegorria eregiteari jagokonez, talde biak ez dira ekimenaren kontra agertu baina “legealdia bukatu aurretik”, Eusko Jaurlaritzaren Txirindularientzako Ibilpideen Euskadiko Plan Zuzendaria onartu arte “itxarotearen” alde agertu dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
21/06/2016

La Diputación establecerá un límite de viajes para pagar un máximo de 30 euros al mes por usar las vías forales de peaje

El diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha comparecido hoy en Juntas Generales, a petición propia, para explicar a los grupos junteros el estudio que servirá de base para poner en marcha, a partir del año próximo, un nuevo “modelo integral de tarifas” que puedan aplicarse a usuarios vizcaínos en las vías sometidas a peaje, contemplando las distintas modalidades de bonificaciones. En su explicación en la comisión correspondiente, el diputado ha señalado que es partidario de abrir un debate para establecer un máximo de viajes para que los usuarios y usuarias de la AP-8, la Variante Sur Metropolitana (VSM) y los Túneles de Artxanda, puedan beneficiarse del límite mensual de pago, fijado en los 30 euros.

En su comparecencia en la comisión de Desarrollo Económico y Territorial de la Cámara vizcaína, Pradales ha hecho un repaso de los cambios que supondrá la aplicación de esta nueva política de pago en las autopistas del territorio – a excepción de la AP-68-, la cual “no afectará” al plan económico-financiero de las carreteras de Bizkaia.

La Diputación ha barajado un total de “cinco” alternativas para modificar el sistema actual, dos basadas en una modificación de las tarifas, y otras tres opciones incorporando un sistema de ayudas o subvenciones. Finalmente, el sistema elegido ha sido el del “límite de gasto mensual”, que quedará fijado en los 30 euros, el cual, según Pradales, además de no tener consecuencias en el plan económico-financiero del departamento, su puesta en marcha será “rápida” y beneficiará a la ciudadanía de Bizkaia. Evidentemente, al denominado “tráfico de paso”, que según el diputado alcanza el “60%” del total de viajes en las vías de alta capacidad, no le será de aplicación dicha propuesta.

El nuevo modelo ha sido elegido en base a “criterios de sostenibilidad del plan financiero”, y “criterios de equidad social y equilibrio territorial”, además de tener en cuenta la “variable de sostenibilidad medioambiental” y la homogeneización de los distintos tipos de ayudas existentes para utilizar la AP-8, la VSM o los Túneles de Artxanda.

El modelo elegido ofrecía en el estudio la mejor puntuación de las cinco analizadas en base a estos criterios. La Diputación ha desechado finalmente una rebaja lineal de las tarifas o la aplicación de descuentos más elevados para los usuarios, así como extender el modelo de subvenciones de la AP-8 o establecer una tarifa “plana” previo pago de una cantidad fija.

El sistema de control será una combinación de tecnologías que deberán ser “complementarias” a la VÍA-T, instalado en los vehículos que quieran acceder a las subvenciones de la Diputación. Esta combinación tecnológica (DSRC y ALPR) no requiere de “altas inversiones”, permite “amortizar inversiones acometidas” y son “suficientes para garantizar el control del fraude”, ha explicado Pradales.

Según sus cálculos, la aplicación de este nuevo modelo de peajes “triplicará” el número de vehículos que actualmente tienen instalado la VÍA-T en Bizkaia. De los “aproximadamente



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

8.000” vehículos que pasan por las cabinas de telepeaje de Interbiak, pasarán a ser “unos 24.000” el año próximo.

La operativa para beneficiarse de estas subvenciones forales será darse de alta en el sistema a través de la página web de la Diputación mediante el correspondiente formulario en el que se tendrá que indicar la persona conductora y la matrícula del vehículo, independientemente de que luego un familiar conduzca el vehículo. El control del fraude se realizará mediante el sistema de lectura de matrículas.

El sistema en su conjunto (equipamientos de lectura fijos, herramientas informáticas y "Back Office") acarreará una inversión de “750.000 euros” y deberá estar listo en seis meses para que su puesta en marcha pueda hacerse en el año 2017. Pradales ha señalado que aquellos usuarios de las vías que no alcancen el pago de 30 euros, podrán beneficiarse en las tres vías de los descuentos que se aplican actualmente en la AP-8. La rebaja del "35%" si se hacen entre 11 y 25 viajes al mes, o del "45%" si son más de 26 viajes, será una “novedad” en la VSM y Túneles de Artxanda.

Pradales ha insistido en que será necesario establecer un límite máximo al mes y un control de los viajes para evitar “efectos perversos” como el ocurrido en otros territorios –Gipuzkoa- para que el mecanismo de Vía-T no pase de coche en coche. El diputado ha explicado que mantiene conversaciones con la Diputación guipuzcoana para analizar los sistemas tarifarios en la autopista que unen ambos territorios.

El diputado ha informado que el nuevo sistema acarreará un gasto extra en ayudas de “3,3 millones de euros” con la hipótesis “más pesimista” y que sólo será de aplicación para personas físicas residentes en Bizkaia. Como han recordado algunos grupos junteros, quedan fuera de estas ayudas “autónomos o taxistas”, si bien ambos podrán "deducirse los gastos" como ha recordado Pradales, o en el caso de los taxistas, "repercutir" el coste del peaje a los clientes.

PROPOSICIONES RECHAZADAS

Tras las explicaciones del diputado, la comisión de Desarrollo Económico y Territorial ha abordado el debate de dos proposiciones no de norma. EH Bildu planteaba la instalación de una cubierta en el puente sobre el Cadagua en la N-634, por un lado; y la finalización de los proyectos previstos en varios PTP para enlazar dos “bidegorris” entre Orduña y Bilbao que siguen el curso del Nervión. Ambas iniciativas han recaído por el rechazo de PNV y PSE-EE. Sólo Podemos Bizkaia ha apoyado sendas propuestas, mientras PP se ha abstenido.

Jeltzales y socialistas han señalado que en el caso de la cubierta peatonal del puente que separa el barrio baracaldés de Burtzeña y el bilbaíno de Zorrotza, las administraciones implicadas (Diputación y Ayuntamientos de Bilbao y Barakaldo), “ya están dando los pasos” para estudiar una posible solución.

En relación a la construcción de un bidegorri en la cuenca del Nervión, ambos partidos no se han mostrado en contra de la iniciativa, aunque sí han abogado por “esperar” a la aprobación “antes de que termine la legislatura” del Plan Director de Itinerarios Ciclables de Euskadi del Gobierno vasco.